

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila****Gobernu kontseiluaren erabakia. Honen bidez, Bizkaiko Lurralde Historikoko Baso-suteetarako Larrialdi Plana (INFOBI) onesten da.**

2017ko abenduaren 19ko (bilerako gai-zerrendaren 62. zenbakia) Erabakiaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu kontseiluak Bizkaiko Lurralde Historikoko Baso-suteetarako Larrialdi Plana (INFOBI) onestu du.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Baso-suteetarako Larrialdi Plana (INFOBI) Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailak egin du, batetik, indarrean dagoen larrialdietako araudia betetzeko -zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren 130/2010 Foru Dekretua, azaroaren 23koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko Larrialdietarako Foru Plana arautzen duena-, eta, bestetik, honako hauetan ezarritakoa betetzeko: «Larrialdiei Aurre Egiteko Bidea - LABI» deritzan Euskadiko Herri Babeseko Planean berrazterketa berezi bat egitea onartzen duen Eusko Jaurlaritzaren 153/1997 Dekretuan eta haren ondorengo aldaketetan —larrialdiei aurre egiteko euskal sistemak dituen integrazio-bideak arautzen dituzte—.

Dokumentu hori egiteko oinarritzat hartu da indarrean dagoen 2009ko Baso Suteen Prebentzio eta Itzaltze Plana, eta haren osagarria da. Planaren idazketan kontuan hartu dira adierazitako arauak eta 893/2013 Errege Dekretua, azaroaren 15ekoa, baso-suteetarako larrialdiko babes zibilaren planifikazioaren oinarritzko jarraibidea onartzen duena. Dekretu hori Bizkaiko Lurralde Historikokoaren errealitateari egokitu zaio, eta lehenasunezkoztat jo da tresna bat izatea, helburutzat duena baso-suteen prebentzioan eta horien aurkako borrokan eta prestaketa-lanetan ari diren zerbitzu eta administrazioak elkarlanean eta modu koordinatuan jarduteko plangintza bat aurreikustea, printzipio honekin koherentzian: pertsonen bizitzaren eta segurtasunaren babesa beste edozein balioen gainetik egotea.

Larrialdi plan hau Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Saileko Udal Harremanen eta Herri Administrazioaren Zuzendaritza Nagusiari bidali zaio, kontsultatu eta aztertu dezan, eta, ondoren, Euskadiko Babes Zibileko Batzordeari, homologatzeko. 2016ko ekainaren 27an, Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen idazkariak ziurtagiria eman zuen, lehendakariaren oniritziarekin, adierazitako 2016ko ekainaren 22an egin zen Euskadiko Babes Zibileko Batzordearen osoko bilkuran adostu zela Bizkaiko Lurralde Historikoko Baso-suteetarako Larrialdi Plana (INFOBI) onestea.

Aurreko guztia aintzat hartuta, adierazitako izapideak eginik eta Plana ezarri eta indarrean jartzeko egin beharreko izapideekin aurrera jarraitzeko helburuarekin, Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzen zaio, onar dezan, indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat.

Bizkaiko Foru Aldundiak eskumena du Plan hau onartzeko, Eusko Legebiltzarraren Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoko Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a).9. eta 7.c).4. artikuluetan eta Mendiei eta Babespeko Naturguneen Administrazioari buruzko ekainaren 2ko 3/1994 Foru Arauan ezarritakoaren babesean, eta adierazitako baso-suteetarako larrialdien arloko araudiaren bat.

Aurrekoa dela bide, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 17. eta 66. artikulua emandako eskumenak erabilita, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuak proposamena eginda eta alde zuzenetik Bizkaiko Foru Aldundiak 2017ko abenduaren 19ko bileran eztabaidatuta, erabaki hau hartu da

**ERABAKIA**

*Lehenengoa:* Bizkaiko Lurralde Historikoko Baso-suteetarako Larrialdi Plana (INFO-BI) onestea (espedientean dago).

*Bigarrena:* Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio erabaki hau betearazteko beharrezko diren xedapen eta egintza guztiak eman ditzan.

*Hirugarrena:* Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, herritar guztiek izan dezaten haren berri.

Bilbon, 2017ko abenduaren 21ean. — Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren foru diputatua, Elena Unzueta Torre